

**UPV/EHUko KLAUSTRORAKO HAUTESKUNDEETARAKO ESKULIBURUAREN 1.
FASEA**

SARRERA.....	2
HAUTESKUNDEEI APLIKATZEN ZAIEN ARAUA	3
KASTEGI BATEAN BAINO GEHIAGOTAN MATRIKULATUTA BANAGO.....	3
NOLA JAKIN DEZAKET HAUTESLE ERROLDAN NAGOEN?	3-4
ZER EGINGO DUT ERROLDAN EZ BANAGO?	5
NOLA AURKEZTEN DA INPUGNAZIO BAT?	5
KLAUSTRORAKO HAUTESKUNDEETARAKO EGUTEGIA 2023.....	6

SARRERA

Gobernu Kontseiluak, 2023ko uztailaren 20an egindako bileran, Unibertsitateko Klaustorako hauteskundeetarako deia egitea erabaki zuen, eranskin gisa atxiki den egutegiaren arabera.

Klaustroa, errektoreak, bertako burua izanik, idazkari nagusiak, klaustroko idazkari gisa jardungo denak, gerenteak eta 240 kidek osatzen dute, azken hauek honetara banatuta:

TALDEA	KIDE KOPURUA
Irakasle eta ikertzaile iraunkor doktoreak	135
Irakasle-ikertzaile iraunkor ez-doktoreak eta irakasle ez-iraunkor doktoreak	19
Gainerako irakasle eta ikertzaileak	4
Ikasleak	53
Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako langileak	29

Gainerako irakasle eta ikertzaile taldean Euskal Herriko Unibertsitatearekin aldi baterako kontratua sinatu dutenak eta doktoreak ez direnak sartzen dira; taldean barneratzen dira, doktorego aurreko kontratu bat sinatu duten doktoregoko ikasleak.

Hauek dira ikasleen taldea osatzen dutenak: graduak eta berezko tituluetako ikasleak, graduondoko ikasleak eta Esperientzia Geletako ikasleak. Hauteskunde hauetan botoa eman ahal izateko, ikasleek matrikula eginda eduki behar dute (eta prezio publiko guztiak ordainduta) urriaren 18a baino lehen.

Hauek dira Teknikariak eta Kudeaketako eta Administrazio eta Zerbitzuetako langileak taldea osatzen dutenak: UPV/EHUko funtzionarioak eta lan kontratadunak, eta indarreko legediari jarraituz UPV/EHUn zerbitzuak betetzen ari diren beste administrazio publiko batzuetako funtzionarioak. Konfiantzako lanpostuetarako errektoreak izendatutako langileak, hain zuzen

ere, UPV/EHUko lanpostuen zerrendan izaera horrekin jasota daudenak, sufragio aktiborako eskubidea baino ez dute izango.

Sufragio aktiborako (botoa emateko) eskubidea gauzatzeko baldintzak hautesle erroldak ixteko egunean bete beharko dira, hau da, urriaren 18an, eta botazioaren egunera arte bete beharko dira, hau da, azaroaren 23ra arte.

HAUTESKUNDEEI APLIKATZEN ZAIEN ARAUA

Hauteskunde hauei aplikagarri zaion arautegiari dagokionez, lehenengo eta behin, UPV/EHUko Klaustroaren Funtzionamenduari buruzko Arautegia (2011/10/13ko EHAA), UPV/EHUko Klaustroaren 2022ko azaroaren 29ko erabakiz aldatua izan dena (2023/04/16 EHAA), eta osagarri gisa, UPV/EHUko Hauteskundeei buruzko arautegi orokorra (2022/11/09 EHAA).

IKASTEGI BATEAN BAINO GEHIAGOTAN MATRIKULATUTA BALDIN BANAGO


Ikastegi batean baino gehiagotan matrikulatuta egonez gero, hauteskunde errolda bakar batean agertuko dira, hain zuzen ere, arduraldi handieneko ikastegikoan. Ikastegiota arduraldi bera izanez gero, (ikastegi batean zein bestean matrikulatutako kreditu kopuru bera, alegia) botoa emango du matrikula lehenago egin dueneko ikastegian.

NOLA JAKIN DEZAKET HAUTESLE ERROLDAN NAGOEN?

Errolda urriaren 19an argitaratuko da ikastegi guztietako iragarki oholetan eta bertan egongo da azaroaren 23ra arte. Hortaz, errolda zauden ala ez jakiteko lehenengo modua zeure ikastegira (zeuk ikasteko erabili edo adskribatu zaizunera) joatea da.

Ikasleek GAURren bidez ere kontsultatu ahal izango dute errolda. Zein bere datuak egiaztatu ondoren, ezkerreko zutabea aukera berri bat dutela ikusiko dute: "Errolda", eta horren azpian "Klaustorako hauteskundeak – Errolda" (ikusi irudia). Aukera honen gainean klik eginez, norberaren erroldako datuak ageriko dira. Azkenik, inpugnazio formulario bat

eskuratzeko aukera ere ageri da aplikazioan, datuak ez badira zuzenak edo aplikazioak mezu hau erakusten badizu: “ez dago errolda-daturik 2023-2024 ikasturtean”



Unibertsitateko Klaustorako hauteskundeetako errolda

Erroldako datuak:

Errolda:	Unibertsitateko Klaustorako hauteskundeak
Abizenak eta izena:	
Bozkatzeko-ikastegia:	Psikologia Fakultatea

BEHIN-BEHINIKO ERROLDA INPUGNATZEKO IDATZIA:

http://www.idazkaritza-nagusia.ehu.es/p254-content/eu/contenidos/formsehu/secretaria_general/eu_instancia/impugnar.php

Nahiz eta datuak web orrian kontsultatu ahal izan, erroldak ez dira inoiz ere hor agertuko.

Irakasle eta ikertzaileek eta TEKAZELak “Langileen Atarian” lortuko dituzte datuak, ondoko aukeran klik eginda: “Nire datuak – Klaustorako hauteskundeetako errolda”. Bertan daude jasota erroldako datuak eta formulario bat eskuratzeko aukera ere ageri da aplikazioan, horren bidez errolden kontrako inpugnazioa egiteko, datuak ez direlako zuzenak edo aplikazioak ondoko mezua erakutsi duelako: “ez dago errolda-daturik 2023-2024 ikasturtean”



ZER EGINGO DUT ERROLDAN EZ BANAGO?

Erroldan egoteko baldintzak betetzen ditudala jakinda, bertan agertzen ez banaiz, **INPUGNAZIO BAT AURKEZTEA** da konpontzeko modu bakarra.

NOLA AURKEZTEN DA INPUGNAZIO BAT?

Inpugnazioa idatziz aurkeztu behar da, urriaren 24ko 10:00ak baino lehen idadzkaritza.nagusia.hauteskundeak@ehu.eus posta elektronikoa edo, kasuan kasu, web-eko formulario bidez, Hauteskunde Batzorde Nagusiko buruari zuzenduta.

Aurkeztutako inpugnazioak adierazitako helbide elektronikora erantzungo dira.

Helbide elektronikoa erabiltz gero, bidalitako egunean zehar ohar bat bidaliko da. Inpugnazioa aurkeztu eta hurrengo egunean ez baduzu oharrik jaso, idazkaritza nagusiarekin harremanetan jarri beharko zarete hurrengo telefono zenbakietan: (14) 2082; (14) 2207; (14) 2899

Web bidezko formularioa erabiliz gero, aplikazioan ohar bat azaltzen da mezua ondo bidali dela esateko. Horrelako oharrik jasotzen ez baduzu, Idazkaritza Nagusiarekin jarri harremanetan idadzkaritza.nagusia.hauteskundeak@ehu.eus posta elektronikoaren bidez.

Formularioa betetzeko klikatu hemen: [FORMULARIO](#)

Hauteskunde Batzorde Nagusiak egiaztatuko ditu erroldetan egindako zuzenketak, eta okerrik edo hutsik antzemanaz gero, zuzendu eta inpugnazioak ebatziko ditu. Horretarako, ikastegiko eta campuseko hauteskunde batzordeek inpugnazioei buruzko txostena egin eta erabakia, proposamenarekin batera, Hauteskunde Batzorde Nagusiari igorriko dio, hark **behin betiko erroldak** aldarrika ditzan **2023ko urriaren 25ean**.

Errolda behin betiko aldarrikatuta, ez da zuzenketarik egiteko aukerarik.

KLAUSTRORAKO HAUTESKUNDEAK, 2023: EGUTEGIA	
Hauteskundeak egiteko erabakia argitaratzeko eguna	2023ko urriaren 16a (astelehena)
Hautesle errolda ixteko eguna	2023ko urriaren 18a (asteazkena)
Behin-behineko hautesle errolda argitaratzeko eguna	2023ko urriaren 19a (osteguna)
Erroldaren kontrako inpugnazioak aurkezteko azken eguna	2023ko urriaren 24a (asteartea), 10:00ak arte
Behin betiko errolda argitaratzeko eguna	2023ko urriaren 25 (asteazkena)
Hautagai zerrendak aurkezteko azken eguna	2023ko azaroaren 8a (asteazkena), 12:00ak arte
Behin-behineko hautagai zerrendak aldarrikatzeko eguna	2023ko azaroaren 10a (ostirala)
Hautagai zerrenden kontrako inpugnazioak aurkezteko azken eguna	2023ko azaroaren 16a (osteguna), 10:00ak arte
Behin betiko hautagai zerrendak aldarrikatzeko eguna	2023ko azaroaren 16a (osteguna)
BOTOA EMATEKO EGUNA	2023ko AZAROAREN 23a (OSTEGUNA)
Klaustrokideen behin-behineko zerrenda aldarrikatzeko eguna	2023ko azaroaren 24a (ostirala)
Klaustrokideen behin-behineko zerrenda inpugnatzeko azken eguna	2023ko azaroaren 30a (osteguna), 10:00ak arte
Klaustrokideen behin betiko zerrenda aldarrikatzeko eguna	2023ko abenduaren 1a (ostirala)
BOZKETA BOTO ELEKTRONIKOAREN SISTEMAREN BIDEZ EGINGO DA	